

II.

ESPARRU OPERATIBOA

2030  EUSKAL ESTRATEGIA

GAZTEEN EMANTZIPAZIOA LAGUNTZEKO

2023ko martxoaren 21a

Gazteria Zuzendaritza

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia

Lehendakaritza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Aurkibidea

Sarrera.

Lehen zatia. Oinarriak.

1. Diagnostikoaren ondorio nagusiak.

- 1.1. Lehentasuna.
- 1.2. Fokalizazioa.
- 1.3. Jarduera-ardatzak.

2. Printzipio gidariak.

- 2.1. Gazteen emantzipazio-prozesuaren zentraltasuna.
- 2.2. Genero-berdintasunaren ikuspegia.
- 2.3. Aniztasuna aitortzea eta errespetuaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa.
- 2.4. Belaunaldien arteko erantzunkidetasuna eta elkartasuna.
- 2.5. Jasangarritasuna eta integritasuna.

3. Misioa, helburuak eta jomugak.

- 3.1. Misioa.
- 3.2. Helburuak.
- 3.3. Jomugak.

4. Jarduketa-planaren irizpide gidaria eta egitura.

- 4.1. Irizpide gidaria.
- 4.2. Jarduera-planaren egitura.

5. Faseak eta aurrekontuaren zenbatespena.

- 5.1. Faseak.
- 5.2. Aurrekontuaren zenbatespena.

Bigarren zatia. Jarduera-plana.

•1. ardatza. Enplegua (eta enplegurako prestakuntza)

•**I. trakzio-proiektua.** Gazte Enplegurako Talka Plana (Berpiztu Programa): 13.500 lanpostu sortzea 2023-2024 aldian.

•**II. trakzio-proiektua.** Gazteen enpleguaren aldeko akordioa bultzatzea Elkarrizketa Sozialaren Mahaian.

•Jarduketa konektatuak eta/edo osagarriak enplegu arloan.

•2. ardatza. Etxebizitza

•**III. trakzio-proiektua.** Emantzipazioa Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialesan sartzea, etxebizitza-sustapen publikoetan gazteentzako kupoa handitzea eta jarduera berritzaileak bultzatzea.

•**IV. trakzio-proiektua.** Gaztelagun programa: laguntzaren zenbatekoa handitzea, Programa urtero eguneratzea eta sartzeko baldintzak hobetzea.

•Jarduketa konektatuak eta/edo osagarriak etxebizitza arloan.

•3. ardatza. Errenta

•**V. trakzio-proiektua.** 25 eta 29 urte bitarteko gazteen emantzipaziorako laguntza ekonomikoen *Emantzipa* Programa abian jartzea.

•**VI. trakzio-proiektua.** Ekintzailtza-, prestakuntza- edo etxebizitza-proiektuetarako mailegu-programa garatzea.

•Jarduketa konektatuak eta/edo osagarriak errenta arloan.

•4. ardatza. Kohesioa

•**VII. trakzio-proiektua.** Trapezistak programa garatzea, 25 urtera arteko familia-laguntzako sarerik gabeko gazteei laguntzeko.

•**VIII. trakzio-proiektua.** Zaurgarritasun-egoeran dauden gazteei (18 urtetik gorakoei) laguntzeko neurriak garatzea.

•Jarduketa konektatuak eta/edo osagarriak kohesio arloan.

•5. ardatza. Erresilientzia

•**IX. trakzio-proiektua.** Aholkularitza eta laguntza pertsonalizatuko zerbitzua, autonomia-ibilbideak eta emantzipazio-kultura berria bultzatzeko GAZ Zerbitzua sortzea; bai eta Ameslariak Programa garatzea ere.

•**X. trakzio-proiektua.** Basque Deal for Youth (Herri-ituna gazteekin eta gazteen alde).

•Jarduketa konektatuak eta/edo osagarriak erresilientziaren eremuan.

Zeharkako jarduerak: aurrekontua, jarraipena eta ebaluazioa.

1. eranskina. Gazteriarekin eta gazteriaren alde herri-ituna egiteko abiapuntuen proposamena.

2. eranskina. Gazteen Emantzipazioa laguntzeko 2030 Euskal Estrategiaren adierazleen taula.

Sarrera

I. Lehen mailako lehenetasuna

Euskadiko errealitate demografikoak, Europako herrialde gehienetan bezala, gero eta kezka handiagoa eragiten du. Gazteen emantzipazio-adina atzeratzeak, jaiotza-tasa jais-teak, amatasun-adina handitzeak eta bizitza-luzera handiagoak biztanleriaren zahartze nabarmena eragiten dute.

Joera horiek ez dira soilik gaur egungo fenomeno bat. Arrazoi nagusiak XX. mendearen azken herenekoak dira. Lehenik eta behin, 80ko hamarkadako krisi ekonomikoa eta laneko eta gizarteko prekaritatearen testuinguru nagusia izan zen; bigarrenik, eta aldi berean, eskubideetan, askatasunetan eta berdintasunean izandako aurrerapen soziopolitiko positiboak, bai eta emakumeek beren amatasunari eta lan-merkatuan sartzeari buruz askatasunez erabakitzeak duten eskubidea pixkanaka konkistatzea ere; eta, hirugarrenik, urte haietan arrakastaz hedatu zen, besteak beste osasunerako eta pentsioetarako eskubidea bermatu zuten zerbitzuen sare publikoa, eta horrek bizitza luzatzea eta duintasun handiagoko baldintzetan garatzea ekarri zuena.

Horrek guztiak aldaketa kulturalak eta sozioekonomikoak ekarri zituen, eta eragina izan zuten gizartearen portaera demografikoetan, oro har, eta gazteen emantzipazio-ohituretan, bereziki.

Estrategia honi dagokionez, *emantzipazioa* bizitza autonomoko proiektu bati hasiera eman nahi dioten gazteak etxetik benetan irtetzea dakarren prozesua da. 2021ean, EAE-ko biztanleen batez besteko emantzipazio-adina 29,7 urtekoa zen, Europako batezbestekoa (26,5) baino hiru urte beranduago. Hala ere, galdetuak izan direnean, gazteek adierazi dute, batez beste, 24,5 urterekin atera nahiko luketela. 25-29 urteko 3 gaztetatik 1 soilik emantzipatu da.

Emantzipazio berantiar horrek ondorioak ditu. Gazteek atzerapena eta nahasmendua izaten dute beren bizitza- eta familia-proiektuen garapenean. Ikuspegi komunitariorik, belaunaldien arteko desorekak eragiten ditu, eta modu erabakigarrian laguntzen du gizartea zahartzen. Horrez gain, gero eta arazo gehiago sortzen ditu ekonomian, lan-merkatuan eta gizarte-babeseko sistemetan.

Inkestetan, gazte gehienek adierazten dute langabezia (% 14, 2022ko hirugarren hiruhilekoan, bi urte lehenago baino ia 10 puntu gutxiago) eta, bereziki, enpleguaren prekaritatea funtsezkoak direla emantzipatzeko. Euskadin, 25 eta 29 urte bitarteko 10 pertsonatik 7k egiten dute lan (% 70,8k). Hala ere, hileko 1.337 euroko (1.424 euro 2010ean) "batez besteko" soldata garbiarekin egiten dute, eta aldi baterako kontratuen (% 56,3) eta partzialtasunaren (% 24,8) baldintzetan.

Era berean, etxebizitza beste oztopo garrantzitsu bat dela adierazten dute. 18-34 urteko soldatapekoek, bakarrik emantzipatu nahi badute, soldataren erdia baino gehiago erabili behar dute merkatu librean etxebizitza jabetzan eskuratzeko (% 52,9) eta alokairuan (% 51,1). Etxeko ekonomien orekaren ikuspegitik, gomendagarria da % 30 baino gehiago ez dedikatzea. Bestalde, Euskadin alokairuen eskaintza, babestua zein librea, eskaria baino nabarmen txikiagoa da, eta horrek ez du merkatua geldiarazten laguntzen.

Zailtasunen batura horrek hirugarren gako bat dakar: errenta. Etxebizitzarik ez dagoen eta garestiak diren eta enplegu urria, prekarioa edo zalantzazkoa den egoeretan, gazteen errenta ez da iristen, normalean, iraunkortasun-ikuspegia duen emantzipaziorako. Enple-

guaren, etxebizitzaren eta errentaren inguruko zailtasun horiek elkarri eragiten diote, eta areagotu egiten dira zaurgarritasun-egoeran dauden gazteei eragiten dietenean eta aukera-berdintasuneko eta belaunaldi barruko kohesioko baldintzei eusteko helburuan eragiten dutenean.

Hala ere, faktore materialak ez dira emantzipazioaren atzerapena eragiten dutenak bakarrik. Faktore kulturalak ere eragiten dute. Gure herrian, Europako beste lurralde batzuetan bezala, 80ko hamarkadako krisi ekonomikotik aurrera, aldaketa handia gertatu zen portara demografikoetan. Eraldaketa horretan, zalantzarik gabeko arrazoi positiboak eta zalantzan jartzeko aukera ematen duten beste arrazoi batzuk elkarrekin bizi dira.

Argi eta garbi arrazoi positiboak direnen artean daude osasunerako, hezkuntzarako eta gizarte-zerbitzuetarako eskubidearen unibertsalizazioa; kontsumorako sarbidearen demokratizazioa; eta emakumeek amatasunari, lan-merkatuan sartzeari eta bizitza publikoan parte hartzeari buruz erabakitzekeo duten eskubidea. Horrek guztiak oinordetzan jasotako eta bidegabeko egiturak edo ohiturak gainditzea dakar.

Zalantzan jar daitezkeen faktoreen artean, norberaren edo familiaren bizi-proiektu bati ekiteko bizitza- eta bizikidetzak-eredu indibidualisten eta segurtasun- edo erosotasun-berme handiak eskatzen duten eredu kultura-hedapena kokatu behar da.

Datu eta gogoeta multzo horrek eta dokumentu honetan azalduko diren gainerakoek agerian uzten dute arlo horrek epe labur, ertain eta luzera duen garrantzi estrategikoa. Azken batean, emantzipatzeko eta beren batez besteko adina aurreratzeko estrategia bat egiteko eta garatzeko beharra lehen mailako lehentasuna da, gazte bakoitzaren bizi-proiektuaren, gizartearen gaztetzeari eta belaunaldien arteko kohesioaren ikuspegitik.

II. Konpromiso instituzionala

Emantzipazio-adin aurreratzeko duen garrantzi estrategikoa eta zeharkakoak lehentasuna du Eusko Jaurlaritzaren politika publikoen aurreikuspen-tresnetan. Gazteriaren arloan, XII. Legegintzaldiko Gobernu Programak bere legegintzaldiko konpromisoen artean jasotzen du gazteen emantzipaziorako zeharkako estrategia definitzea, bultzatzea eta koordinatzea. Dokumentu honek konpromiso horri erantzuten dio.

Era berean, enpleguari buruzko kapituluan eta emantzipazioari dagokionez, Gazte Enplegurako Talka Plan bat sustatzeko konpromisoa zehazten du. Ekimen hori Euskadiko Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Berpiztu Programaren barruan dago. Ildo beretik, 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategiak lehentasuna ematen dio gazteei kalitatezko enplegua lortzen laguntzeari, eta zahartzeak enpleguan eta belaunaldi-erreleboan dituen ondorioei erantzuten die. Hori guztia EBren Gazteentzako Estrategiarekin bat etorriz, estrategia horren helburuetako bat kalitatezko enplegua baita.

Etxebizitzaren atalean, Gobernu Programak gazteek etxebizitza eskuratzearekin lotutako konpromisoak definitzen ditu. 2021-2023 aldirako Etxebizitza Plan Zuzentzailearen lehen ardatza Euskadin alokairu eskuragarria sustatzea da. Gaztelagun programaren aginduak, gazteentzako etxebizitzaren alokairua arautzen duenak, eta 2022ko apirilaren 26an onartu zenak, programan parte har dezaketen pertsonen kopurua, laguntzak jasotzeko denbora eta hauen zenbatekoak handitzen ditu.

Bestalde, 2022ko martxoaren 10ean, Gazteen Legea onartu zen, hiru ardatz nagusirekin: gazteria-sistema eta -zerbitzuak sendotzea, gazteen parte-hartzea sustatzea eta emantzipazio-prozesuak bultzatzea, batez ere adina aurreratzeko helburuan arreta jarritz, 2030eko hamarkadaren horizontean 28 urte izan daitezkeen. Legegintzaldiaren hasieran hartutako konpromisoak betetzeko ildo beretik, 2022ko ekainaren 21ean, Gobernu Kontseiluak Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia onartu zuen.

Prozesu horren ondorio gisa, Politika Orokorraren Osoko Bilkuran, irailaren 22an, Lehendakariak iragarri zuen Gazteria Zuzendaritza, ordura arte Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailean zegoena, Lehendakaritzaren egiturari atxikita geratuko zela, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiaren barruan. Arlo horrek bere gain hartu zuen, aldez aurretik, Erronka Demografikoaren Estrategia dinamizatze eta koordinatzeko zeregina.

Horrela, gazteriaren, emantzipazioaren eta erronka demografikoaren politiketan sailen arteko eta erakundeen arteko koordinazioa sustatu nahi da, zeharkako ikuspegi batekin eta Nazio Batuen 2030 Agendarekin lerrokatuta. Azken batean, legegintzaldi honetan eta, bereziki, 2022an zehar, emantzipazioaren arazoan eragin zuzena duten erabaki garantzitsuak hartu dira.

III. Estrategia hau egiteko jarraitutako prozesua

Estrategia hori egiteko abiapuntua 2021aren erdialdean kokatzen da, hainbat partaidetza- eta kontsulta-prozesu sustatuta gazteekin. Ondoren, martxoaren 10eko 2/2022 Legeak, Gazteriari buruzkoak, Estrategia horren edukiak zein esparrutan kokatu behar diren zehazten du.

Aldi berean, 2022ko lehen seihilekoan, Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia burutzen ari zen Eusko Jaurlaritza. Maiatzaren 18an, Eusko Legebiltzarrak Erronka Demografikoari buruzko Osoko Bilkura Monografikoa egin zuen. Bertan onartutako 74 ebazpenak Gobernu Kontseiluak ekainean behin betiko onartu zuen demografiari buruzko strategiaren azken dokumentuan sartu ziren.

Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategiaren lehentasunezko ardatzetako lehen gazteen emantzipazioan oinarritzen da. Horrela, Gazteen Emantzipazioa laguntzeko 2030 Euskal Estrategia Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia garatzeko tresna espezifikoa da.

Aurrekari horiekin, 2022. urtea trantsizio-aldi gisa eratu da, bai gazteria- eta emantzipazio-politikaren araugintza- eta plangintza-tresnak definitzeko dagokionez, bai horiek sustatu beharko dituzten erakunde-egiturei dagokienez. Estrategia hori Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak hasi eta garatu zuen, eta Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak amaitu, sail horrekin koordinatuta.

Edukiak eraikitzei dagokionez, Estrategiaren oinarrian dagoen zati diagnostikoak ikuspegi kualitatiboa –gazteekin egindako hiru partaidetza-prozesuren bidez garatua– eta kuantitatiboa biltzen ditu, Gazteen Euskal Behatokiak dituen datu-serie historikoen ustiapenetik abiatuta. Bereziki, *Gazteen adierazleak 2021. Euskadiko Gazteen Panorama* txostenetik.

Focus Group metodologiaren bidez garatutako partaidetza-prozesuak 2021eko uztailetik urrira bitartean egin ziren elkarrekin kanpoko gazteekin, eta hiru gai jorratu zituzten: *pandemiak emantzipazioan duen eragina; emantzipazioa eta bazterketa; eta talentua erakartzea, atxikitzea, itzultzea eta konektatzea.*

Estrategia idazteko prozesuaren hasieran eta amaieran, dinamika horiek Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK) erakundearekin kontraste zuzenak eginez osatu ziren. Ildo horretan, estrategia-proposamenak koherentzia du Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak etxebizitzaren, enpleguaren eta emantzipazioaren arloetan egin duen lanarekin. Gainera, nazioarteko emantzipazio-politikei buruzko azterlan konparatua gehitu zen, Gazteen Euskal Behatokiaren web gunean eskuragarri dagoena.

Aipatutako mugarrak eta erreferentzia guztiak baliagarriak izan dira trakzio-jarduerak identifikatzeko edo baliozkotzeko, eta gazteen emantzipazioa aurreratzea lagundu nahi duen euskal Estrategia diseinatzeke.

Estrategia hau 2022ko abenduaren 7an aurkezten zen Gobernu Kontseiluan, hasierako proposamen gisa. Une horretatik aurrera, otsailaren 7ra arteko epea ireki zen herritarren, erakundeen eta gazte-elkarteen sarearen ekarpenak jasotzeko. Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritza Eusko Legebiltzarreko Gizarte Politika eta Gazteria Batzordean agertu zen edukia aurkezteko.

Abenduaren 7an aurkeztu zenetik 2023ko martxoaren 21ean behin betiko onartu arte iga-rotako hiru hilabete eta erdian garatutako estrategiaren edukiak berrikusteko eta parte hartzeko prozesuari esker, ekarpen ugari sartu ahal izan dira, edukiak hobetu edo datuak eta aurreikuspenak eguneratu dituztenak.

IV. Egitura eta edukiak

Estrategia-proposamena bi dokumentutan aurkezten da: I. Analisi-esparrua eta II. Esparru operatiboa. Bi dokumentu horietako lehenak Euskadiko gazteen emantzipazioaren gaia aztertzeko oinarri gisa balio duten datuen eta erreferentzien multzoa eskaintzen du. Lehenengo puntuak, diagnostikoa eta testuinguru soziala jorratzen ditu. Ikuspegi kuantitatiboa, hurbilketa kualitatiboa eta zenbait ikaskuntza-erreferentzia eskaintzen ditu nazioarteko ikuspegitik. Araudi- eta plangintza-erreferentzietan buruzko puntu batekin osatzen da, bai Euskadin, bai Estatuan eta Europan.

Bigarren dokumentua, liburuki honi dagokiona, ekintzara bideratuta dago eta bi zatitan egituratuta dago: oinarriak eta jarduketaren plana. Diagnostikoaren ondorio nagusiak, estrategiaren printzipio orientatzaileak, xedea, helburuak eta jomugak, irizpide gidaria eta aurrekontuaren faseak eta zenbatespena berrikusten dituzte oinarriak.

Bigarren zatian, bost ardatzetan egituratzen den jardueraren plana deskribatzen da: enplegua (eta enplegurako prestakuntza), etxebizitza, errenta, kohesioa eta erresilientzia. Ardatz horietako bakoitzari bi trakzio-proiektu lotzen zaizkio. Jardueraren planak, beraz, lehentasuneko bost ardatz eta hamar trakzio-proiektu ditu. Horrez gain, ardatz bakoitzaren barruan beste ekimen batzuk ere aipatzen dira, konektatuak edo osagarriak; guztira, 27 jarduerak.

Jardueraren plan horrek zeharkako ardatz gisa jasotzen ditu, halaber, aurrekontu-kudeaketari, urteko jarraipen-memoriei eta adierazleen eta ebaluazioaren koadroei dagozkien atalak.

Bigarren dokumentu hau bi eranskinekin osatzen da: lehenengoan, gazteriarekin eta gazteriaren aldeko herri-itun baterako abiapuntuen proposamena jasotzen da; eta, bigarrean, Gazteen Emantzipazioa laguntzeko 2030 Euskal Estrategiaren adierazleen taula.

Gazteen emantzipazioa eta, zehazkiago, emantzipatzeko batez besteko adina aurreratzea lotuta dago gazteen aukerekin, euskal gizartearen gaztetzearekin eta belaunaldi arteko eta belaunaldi barruko kohesioarekin. Herri-helburu bat da, eta lehen mailako lehentasuna. Adostasun zabalena bilatu behar da, gazteekin eta gazteriaren alde herri-itun bat eratzeko.

LEHEN ZATIA

OINARRIAK

1. Diagnostikoaren ondorio nagusiak

Estatistikari dagokionez, eta emantzipatzeko batez besteko adina edo tasa kalkulatzeko, emantzipatutzat hartzen da jatorrizko familiaren etxean jada bizi ez den pertsona, alde batera utzita lortu duen independentzia ekonomikoaren maila eta itzuli nahi duen ala ez. Emantzipazio hori finkatutzat joko da norberaren baliabideekin eta bi urte baino gehiago irautesan duenean.

Emantzipazio-prozesuen faktore erabakigarriak asko, askotarikoak eta konplexuak dira. Garrantzitsuenen artean, argi eta garbi nabarmentzen dira lan-egoera, etxebizitza esku-ratzeko zailtasuna edo errenta erabilgarria. Hala ere, aipatzekoak dira eragin handia duten beste faktore batzuk, hala nola generoa, klase soziala, dibertsitate funtzionala, etnia, jatorria, sexu-orientazioa edo beste arrazoi batzuegatiko desberdintasuna edo diskriminazioa; eskuragarri dauden laguntza instituzionalak, familiakoak edo sozialak; barnerratuak balio kulturalak; edo ezarritako gizarte-babesekeo sistemak eta ongizate-ereduak; besteak beste.

Halaber, faktore pertsonalek, hezitzaileek edo subjektiboek ere eragiten dute, hala nola pertsona bakoitzaren itxaropenek, jomugek, asmoek edo balioek eta aurretiazko gaitasunek eta ikasketek. Ildo horretan, familia-ereduen eraginari eta autonomia-itxaropenei buruzko hainbat azterlanen ondorioak nabarmendu behar dira. Alde batetik, "orain presa gutxiago dago" familiaren etxetik ateratzeko, gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak malguagoak direlako, ez direlako hain autoritarioak eta gogobetetze-maila hobea eskaintzen dutelako. Bestalde, familiaren eta gizartearen kulturaren emantzipatzeko gutxieneko baldintzen gainean eraikitako eskakizun ekonomikoek areagotu eta atzeratu egiten dute irteteko unea.

Generoak, gurasoen eta gazteen prestakuntzak ere eragiten dute. Emakumeak gizonak baino gazteago emantzipatzen dira, eta, batez ere, gehiago emantzipatzen dira. Gurasoek prestakuntza edo lanbide-kualifikazio txikiagoa duten etxekoek unitateetan, seme-alabek presio handiagoa egiten dute etxea uzteko; eta, alderantziz, ikasketak luzatzeko eta etxean egoteko joera handiagoa da gurasoek prestakuntza gehiago dutenean. Unibertsi-tateaz kanpoko pertsonen emantzipazio-tasa ere handiagoa da.

Faktore objektiboek eta subjektiboek arabera, pertsonak askotariko emantzipazio-ibilbideak eta -estrategiak jarraitzen dituzte. Azterketa kuantitatibotik eta kualitatibotik ondorio ugari eta askotarikoak atera daitezke, baita Estrategia honen I. dokumentuan aztertutako nazioarteko esperientzietatik ere. Puntu honek ez ditu guztiak hartu nahi, esparru operatiboa mugatzeko funtsezkotzat jotzen dituenak azpimarratu baizik. Hiru nabarmentzen dira:

1.1. Lehentasuna

Emantzipazioa sustatzea lehen mailako lehentasuna da, bai emantzipazioaren atzerape-nak dakartzan ondorio sozial eta ekonomikoengatik, bai desoreka horrek egungo gazteen belaunaldietan eragiten duen belaunaldi barruko eta belaunaldien arteko ekitaterik eza zuzentzeko betebeharrak etikoagatik.

1.2. Fokalizazioa

Errealitateari buruzko datuak eta egindako azterlanak kontuan hartuta, gazteen emantzipazioa sustatzeko ahaleginak 25 eta 34 urte bitarteko pertsonengan oinarritu behar dira, eta emantzipazioa gertatzen den batez besteko adina aurreratzea izanik helburua, 25 eta 30 urte bitarteko pertsonengan ardatzu behar dira, eta, bereziki, emantzipatzen ez direnen edo emantzipazioa finkatzen ez dutenen artean, haien errenta ez baita iristen horretarako.

1.3. Jarduera-ardatzak

Gazteen emantzipazioa sustatzeko esku-hartzea bost eremu estrategikotan kontzentratu behar da:

- Enplegua. Trebakuntza bultzatzea, enplegua sustatzea eta sortzea, eta haren kalitatea hobetzea.
- Etxebizitza. Etxebizitza eskuratzen laguntzea, batez ere alokairuan.
- Errenta. Gazteen errenta erabilgarria hobetzen laguntzea.
- Kohesioa. Belaunaldi barruko kohesioa sustatzea kalteberatasun-egoeren aurrean.
- Erresilientzia. Emantzipaziorako eta haren baldintzetarako eta ibilbideetarako eraldaketa kulturala babestea, baita zailtasunaren aurreko ahalduntzerako ere.

2. Printzipio gidariak

Gazteriaren Euskal Legeak zeharkako eta sektoreko gazte-politikak nahiz gazteen emantzipaziorako politika espezifikoak antolatzen eta bultzatzen ditu. Gazte-politika integralaren barruan sartzen dira gazteen autonomia, emantzipazioa eta gizarteratzea ahalbidetzeko neurriak, bai eta gaztetasunaren sustapena ere, haien partaidetzarekin eta sailen nahiz gazte-sistemaren edo -sarearen jardunaren bitartez.

Legearen hiru helburu nagusietako bat, hain zuzen ere, emantzipazio-politika espezifiko bat bultzatzea da, gazteen emantzipazio-tasa handitzeko, batez ere adin handieneko tarreetan, eta jatorrizko etxetik beren bizikidetzaren unitatea osatzeko ateratzen diren batez besteko adina murrizteko.

Gazteen emantzipazioa gazteak gizartean erabat integratzea lortzera bideratuta dago, aukera-berdintasunean. Norberaren eta familiaren bizi-proiektua autonomiaz eraiki ahal izateko eta eskubide guztiak baliatzeko baldintza egokiak sortzea da helburua. Horrek guztiak bereziki azpimarratzen du kalteberatasun handieneko egoerei aurre egiten dietenei ematen zaien laguntza, dela genero-diskriminazioak eragindakoa, dela migrazioaren ondorioek eragindakoa, dela egoera sozioekonomiko kaskarrak eragindakoa, dela desgaitasunaren edo gaixotasun mentalaren moduko errealitateen inpaktuak eragindakoa, dela aukera-berdintasuna, belaunaldi barrukoa eta belaunaldi artekoa, eta gizarte-kohesioa baldintzatzen duen beste edozein errealitatek eragindakoa.

Emantzipazio-estrategiak laguntza anitzak eta aukera-berdintasuna sustatzera bideratutakoak definitzen eta hedatzen lagundu behar du. Beraz, gazteen emantzipazio-profilen, -egoeren, -ibilbideen eta -estrategien aniztasunera egokituta egon behar dute. Esparru orokor horren barruan, estrategia honen printzipio gidariak honako hauek dira:

2.1. Gazteen emantzipazio-prozesuaren zentraltasuna

Gazteek beren bizi-proiektua gauzatzeko dituzten zailtasunak gizarte-defizitaren adierazle oso garrantzitsua dira. Emantzipaziorako aldeko baldintzak sustatzea, aukerarik ezak eragindako atzerapenik gabe, estrategia honen ardatz nagusia da gazte-politiken esparruan.

2.2. Genero-berdintasunaren ikuspegia

Estrategia eta jarduketa guztiak genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala dute oinarri. Helburua da pertsona guztiek beren emantzipazio-prozesuei aukera-berdintasunean aurre egin ahal izateko baldintzak bultzatzea, generoa edo edozein diskriminazio-faktore alde batera utzita.

2.3. Aniztasuna aitortzea eta errespetuaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa

Estrategiaren abiapuntua familia-egiturak, bizitza pertsonalaren edo profesionalaren ibilbideak eta bizi-autonomiaren proiektuak murgilduta dauden aldaketa-prozesu sakona aitortzea da. Testuinguru horretan, bere egiten du aukera-aniztasunarekiko errespetuaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa. Era berean, bere gain hartzen du politi-

ka sektorialetan errealitate sozioekonomiko desberdinek edo desgaitasun- edo osasun mentaleko arazoiek eragindako mugak eta baldintzatzaileak murriztera bideratutako jarduerak indartzeko konpromisoa.

2.4. Belaunaldien arteko erantzunkidetasuna eta elkartasuna

Estrategia horren jardunek antolaketa sozial erantzukide eta solidario baterantz aurrera egiteko beharra biltzen dute, belaunaldien arteko ikuspegitik. Ikuspegi horrek esan nahi du estrategian sartu behar dela sektore eta belaunaldi arteko herri-ituna sustatzeko proposamena, modu kolektiboan bere gain hartuko dituen emantzipazio-adina aurreratze-ko helburuaren garrantzia eta helburu hori lortzeko erantzun-ardatzak.

2.5. Jasangarritasuna eta integritasuna

Estrategia horren hedapena, lehenik eta behin, jasangarritasun-printzipioak gidatzen du. Haren helburuek eta ekimenek epe labur, ertain eta luzerako bideragarritasun-horizonte errealista izan behar dute. Bigarrenik, bere jarduera-planaren osotasuna bilatzen du: Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategiaren lehentasunezko ardatzetako baten garapen espezifiko gisa eratzten da; eta bultzatzen dituen eraldaketa-prozesuak bat datoz Nazio Batuen 2030 Agendaren Garapen Jasangarriko Helburuekin.

3. Misioa, helburuak eta jomugak

3.1. Misioa

Laburbilduta, estrategia horren helburua da batez besteko adina hezteko eta emantzipazio-tasak handitzea, jatorrizko etxetik irteteko prozesuak sostengatuz, bizkortuz eta hauei eusten lagunduz.

3.2. Helburuak

Estrategia hori ebaluatzeko, hiru helburu nabarmentzen dira:

- 18 eta 34 urte arteko pertsonen emantzipazio-adina 29 urte inguruan kokatzea 2025ean, eta 28 urte artean, 2030eko hamarkadan.
- Gazteen emantzipazio-tasak handitzea, pixkanaka % 50 inguruan kokatuz, 25-29 adin-tarteetan, eta % 75ean 30-34 adin-tarteetan.
- Helburu horri laguntzeko politikak emaitza onenak dituzten herrialdeen mailan kokatzea.

3.3. Jomugak

Lehenengo etapan, 2030 Estrategia honi dagokiona, asmoa da 25-29 eta 30-34 urte bitarteko pertsonen, batez ere lan-esperientzia dutenean eta/edo emantzipazio-prozesuari ekin diotenean:

- enplegurako sarbidea eta diru-sarrerak hobetzea. Ebaluazioari dagokionez, hileko batez besteko soldata garbia hobetzea eta hilean 600 euro baino gehiago dituztenen tasa handitzea dakar;
- etxebizitza eskuratzeko gaitasuna hobetzea, bai parke publikoan, bai merkatu pribatuan eta, bereziki, alokairu-erregimenean;
- jatorrizko etxetik irteteko prestazioak, laguntzak eta/edo maileguak eskuratzeko, eta era askotako diru-sarreraren eta bizitza-proiektu autonomo bati eusteko behar den gastuaren arteko ratioa hobetzea;
- zaugarritasun-egoeran dauden gazteek, bereziki, ekintza positiboko neurriak hartzea;
- emantzipazio-ibilbideetarako informazio eta orientazio pertsonalizatua izatea.

4. Jarduketa-planaren irizpide gidaria eta egitura

4.1. Irizpide gidaria

Estrategia honen irizpide nagusia da dagoeneko aktibo dagoenaren edo aurreikusita dagoenaren onena jarduera berritzaile berriei batzea. Horrek esan nahi du emantzipazio-politika espezifiko bat antolatu eta bultzatu behar dela, neurri eta jarduera berriei batera ezarritako politikak integratu, trinkotu eta optimizatuko dituen, helburu eta esku-hartze ildoan esparru berean eta zentzu-unitate beraren barruan.

Ez da, beraz, mihise zuri baten gainean diseinatzen den estrategia bat. Ez da hutsetik hasten, eta ez du gutxiesten egin den, egiten ari den edo egitea aurreikusita dagoen guztiaren balioa. Lehendik zeuden politika publikoen eta politika berrien eraginkortasuna eta efikazia jarduera-sistema sinergiko batean biltzen ditu. Sistema horren helburua da joera-aldaketa bat lortzea, tasari eta emantzipatzeko batez besteko adinari dagokienez.

4.2. Jarduera-planaren egitura

Puntu honetara arte azaldutakoan oinarrituta, jarduketa-planak hamar trakzio-proiektu eta horiei lotutako edo osagarriak diren 27 jarduketa ditu. Hori guztia bost eremu hauetan txertatzen eta egituratzen da:

- 1. Enplegua (eta enplegurako prestakuntza).
- 2. Etxebizitza.
- 3. Errenta.
- 4. Kohesioa.
- 5. Erresilientzia.

5. Faseak eta aurrekontuaren zenbatespena

5.1. Faseak

Estrategia horren etapen programazioa Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategian ezarritakoarekin lotzen da. Horrela, hiru etapa aurreikusi dira:

- Prestakuntza. 2022ko ekainetik 2023ko martxora: Estrategia egin eta onartzea, eta Gazteekin eta gazteen aldeko Itunaren proposamena prestatzea.
- Abian jartzea. 2023ko martxotik 2025eko amaierara: Estrategiaren lehen fasea prestatzea, garatzea eta ebaluatzea.
- Sendotzea. 2026tik 2030era: Estrategia hedatzea eta finkatzea, eta haren aldizkako ebaluazioa.

5.2. Aurrekontuaren zenbatespena

Prozeduraren ikuspegitik, estrategia hori onartzeak ez du oraindik lotesten haren azken eduki ekonomikoaren definizioa. Jarduera bakoitzaren ardura duen sail bakoitzak garatu, zehaztu eta islatu beharko du, prozedura egokien bidez, kasu bakoitzean aurrekontuan.

Hala eta guztiz ere, Estrategia honen proiektu eragile bakoitzak koadro operatibo bat du, honako hauek identifikatzen dituen: zein den “arloan arduraduna”, zein den “abian jartzeko egutegia” eta zein den “aurrekontuaren zenbatespena”.

Elkarri lotutako “jarduketan eta/edo jarduera osagarrien atalako ekimenak” dagoeneko abian diren edo aurreikusita dauden proiektuei dagozkie, eta proiektu horien isla dagoen arloaren edo sailaren aurrekontuan jasotzen da. Jarduera horietako batzuek, beren izaeragatik, ez dute aurrekontu-eragin gehigarririk, eta, azkenik, beste kasu batzuetan, au-

rrekontuan islatzea lehen fasean aurreikusitako txosten-, diseinu- edo zehaztapen-tresnak burutzearen mende dago.

Ondorioz, jarduera bakoitzaren eduki ekonomikoak, hala badagokio eta abian jarri aurretik, dagokion aurrekontu-kontsignazioa eta tresna juridiko egokia beharko ditu.

BIGARREN ZATIA

JARDUERA-PLANA

1. ardatza. Enplegua

(eta enplegurako prestakuntza)

•I. trakzio-proiektua.

Gazte Enplegurako Talka Plana (Berpiztu Programa): 13.500 lanpostu sortzea 2023-2024 aldian

Gazte Enplegurako Talka Plana Enpleguaren 2030 Euskal Estrategian eta Eusko Jaurlaritzaren Enpleguaren Plan Estrategikoan jasota dago, bai eta Berpiztu programan ere (Euskadiko Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Programa). Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategiaren 8. jarduketan ere aurreikusitako ekimena da.

Elkarri lotutako sei programa hauen garapena hartzen du: (1) Enplegurako lanbide-heziketa eta unibertsitate-prestakuntza duala; (2) Hezkuntza-mundutik lan-mundura igartzeko programak; (3) Gazteen enplegurako prestakuntza-bekak; (4) Gazteen laneratzeko prestakuntza; (5) Gazteen enplegurako programak (Lehen Aukera, Txanda Kontratua, Gazteen Itzulera eta Gazteak laneratzeko ekintza berritzaileak); eta (6) Gazteen ekintzailtza.

2023-2024 aldian berariaz gazteei zuzendutako programa horietan 82 milioi euroko inbertsioa egingo da. Enplegua sustatzeari dagokionez, helburua da 2024an 13.500 lanpostu sortzea gazteentzat, eta horiei 13.800 gehitu behar zaizkie, enplegu-programa orokorrek gazteen enpleguan izan duten eraginaren ondorioz.

Talka-plan honetako jarduerak gazteen prestakuntza eta enplegua sustatzera bideratuta daude. Enplegua eta kalitatezko enplegua lortzea ezinbesteko baldintza da jatorrizko familia-etxetik irteteko eta irteera hori finkatzeko. Logikoaenez, prozesuan ebaluazio-, kontrol- eta jarraipen-mekanismoak ezarriko dira, lortu nahi diren helburuak betetzen direla bermatzeko.

Lan-merkatuaren beharretara egokitutako prestakuntzak eta prestakuntza dualaren eremuan sakontzeak, gazte emigratuen itzulera errazteko ekintzek edo txanda-kontratuek berehalako eragina izan dezakete enplegu egokituaren, kualifikatuaren eta kalitatezkoaren tasetan, emantzipazioan eta balantze demografikoan.

Ondorio bera izan dezake gazteen ekintzailtzak hazten ari diren eta balio erantsia duten sektoreetan, eta horrek, gainera, ekimenaren, autonomiaren eta erresilientziaren kultura sustatzen du, bai eta beste neurri berritzaile batzuk ere, enplegua dutenengan eta enplegua hobetu nahi dutenengan zentratuak.

Arlo arduraduna	·Lan eta Enplegu Saila. ·Hezkuntza Saila.
Martxan jartzeko egutegia	·2023an eta 2024an.
2023 eta 2024rako aurrekontu-zenbatespena	·82,5 milioi euro.

•II. trakzio-proiektua.

Gazteen enpleguaren aldeko akordioa bultzatzea Elkarrizketa Sozialaren Mahaian

Elkarrizketa Mahaian 2023rako Lan Planean gazte-enpleguaren kalitatearekin lotutako jarduera bat edo batzuk sartzeko proposamena.

Lanak ondorengo hiru krisiek gazteen enpleguan izan duten eraginari buruzko diagnostiko batean oinarritu beharko da, emantzipazio-prozesuekin duten harremanean, bai eta lanbide-heziketako ikasketarik edo unibertsitate-ikasketarik gabeko gazteengan, emakume gazteengan, gazte migratzaileengan eta desgaitasuna duten gazteengan izan duen eragin berezian ere, genero-ikuspegia eta interseksionala hartuta.

Gainera, talentu gaztea atxikitzeko eta erakartzeko neurriak hartu behar ditu, aurre egin behar diogun erronka demografikoari aurre egin ahal izateko.

Jarduera hori Elkarrizketa Sozialerako Mahaiaren 2023ko lan-planean gizarte-eragileekin adosten den moduan sartuko da.

Arlo arduraduna	<i>·Lan eta Enplegu Saila.</i>
Martxan jartzeko egutegia	<i>·2023an zehar.</i>
Aurrekontuaren zenbatespena	<i>·Aurrekontu-eraginik gabe.</i>

Jarduketa konektatuak eta/edo osagarriak enplegu arloan

• 1. jarduketa. Belaunaldi-erreleboko zikloa kudeatzen laguntzeko programa

Hiru sektoreei (publikoa, pribatua eta soziala) eta mota guztietako enpresei zuzendua, belaunaldi-erreleboa sustatzeko eta bultzatzeko, besteak beste, *Lan Mentoring*, ETEetan belaunaldi-erreleboari heltzeko Lanbideren eta Innobasqueren ekimen pilotua bezalakoaren bidez.

• 2. jarduketa. Lan-orientazioko eta enplegua hobetzeko prestakuntzako programa

Lan-esperientzia edo lehen enplegua duten 25 eta 34 urte bitarteko pertsonen zuzendua. Programa Lanbideren bitartez diseinatu, gauzatu eta ebaluatuko da gizarte eragileekin hitz eginez, eta hedatzen ari diren eta eskulana kualifikatua behar duten sektoretako merkatu-segmentuei erantzungo die.

• 3. jarduketa. Enplegurako pizgarriei buruzko 2001eko otsailaren 14ko AGINDUA aldatzea

Helburua da soldaten eta beste errenta batzuen arteko konbinazioa hobetzea, hala nola DSBE edo Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera, gizarteratzea eta emantzipazioa bultzatzeko. Jarduera honek gazteengan duen eragina 3. ekimenaren garapenari lotuta dago.

2. ardatza. Etxebizitza

•III. trakzio-proiektua.

Emantzipazioa Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialesan sartzea, etxebizitza-sustapen publikoetan gazteentzako kupoa handitzea eta jarduera berritzaileak bultzatzea

Gazteen emantzipazioa sustatzeko helburua Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialesan sartzea, bereziki alokairuari eta 25-29 urteko tarteari dagokienez, baita belaunaldien arteko ikuspegia ere.

Etxebizitzen sustapen publiko guztietan 36 urtetik beherako pertsonentzako etxebizitzaren kupoaren gehieneko ehunekoa aplikatuko da, % 40.

Horrez gain, gazteei zuzendutako jarduera berritzaileen multzo hau bultzatuko da, bereziki belaunaldien arteko programetan edo programa irekietan:

- Gazteentzako Zuzkidura-Bizitokiak kopurua handitzea. Egoitza-modalitate horrek neurri txikiko bizitoki-irtenbideak eskuratzeko aukera ematen du, gehienez ere bost urteko epean.
- Gazteen eta belaunaldien arteko cohousinga eta colivinga bultzatzea, etxebizitza-kooperatiben sustapena eta bitartekaritza barne, GAZetik, EGKrekin lankidetzan, ekimen multzo hori sustatzeko interesa duten alderdiak harremanetan jarritz. Aurretik, proposamen arrakastatsuak aztertuko dira, sektorean esperientzia duten erakundeekin lankidetzan.
- Hiri-etxezaintza sustatzea (errenta bidezko birgaitzea).
- Erabilera-lagapena etxebizitza eskuratzeko modu berritzaile gisa, alokairuaz eta erosketaz bestelakoa, erakunde titularrari (kooperatiba) inbertsioaren amortizazioa eta mantentzea estaltzen dituen hileko kanon bat ordainduz, eta hirugarrenei transferitu dakiekeena.

Arlo arduraduna	<i>·Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila.</i>
Martxan jartzeko egutegia	<i>·Lehen etapa: 2023an eta 2024an.</i>
Aurrekontuaren zenbatespena	<i>·Proiektu berritzaileak definitzean sartuko da.</i>

•IV. trakzio-proiektua.

Gaztelagun programa: laguntzaren zenbatekoa handitzea, Programa urtero eguneratzea eta sartzeko baldintzak hobetzea

Urtero, alokairu-kontratu baten titular diren 18 eta 35 urte bitarteko pertsonen zuzendutako Gaztelagun Programako laguntzak emateko irizpideak eguneratuko dira, zenbatekoa barne. 2023an, gehieneko zenbatekoa 300 eurora igoko da.

Neurri horiek beste hobekuntza batzuekin osatuko dira, hala nola hiriburuetan, 10.000 biztanletik gorako udalerrietan eta gainerako udalerrietan diruz lagundu daitekeen gehieneko errenta handitzea. Programa alokairuko eskariaren eta eskaintzaren bilakaera konbinatura egokituko da, eta, horrela, bilakaera hori handitzen bada, programa azkar

egokituko da, ahalik eta gazte gehien benetan sar daitezen. Prozesu horiek garatzean eta eguneratzean, kontuan hartuko dira Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak egindako oharrak eta iradokizunak.

Arlo arduraduna	<i>·Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila.</i>
Martxan jartzeko egutegia	<i>·Urtero.</i>
Aurrekontuaren zenbatespena	<i>·Eguneratze bakoitzaren arabera, urteko aurrekontuan sartuko dira.</i>

Jarduketa konektatuak eta/edo osagarriak etxebizitza arloan

Euskadiko etxebizitza-merkatuaren ezaugarriek (alokairuko etxebizitzaren % 12 soilik, Estatukoa baino 5 puntu gutxiago) emantzipazioa zailtzen dute. Joera horri buelta emateko, estrategia iraunkor bat behar da.

2021-2023 aldirako Etxebizitza Plan Zuzentzailearen 1. ardatzaren garapenak, hain zuzen ere, estrategia bat osatzen du, etxebizitzaren merkatua epe ertain-luzera eraldatzeko, alokairu babestua, ekimen publikokoa zein pribatukoa, sustatzearen aldeko apustua indartuz, datozen 15 urteetan etxebizitza babestuaren parkea bikoizteko helburuarekin.

1. ardatza hiru estrategiatan hedatzen da: a) babes publikoko etxebizitzaren parkea handitzea, ekimen publikoan alokairuaren aldeko apustu eksklusiboa eginez; b) etxebizitza eskuragarria izatea bermatzeko baliabideen eta prestazioen sistema garatzea; eta c) jenderik gabeko etxebizitzak mobilizatzea Bizigune programaren eta 149/2021 Dekretuaren bidez.

Hiru estrategia horiek hainbat ekintza biltzen dituzte honako helburu hauekin: a) alokairuko etxebizitza sozialaren sustapen publikoa eta pribatua bultzatzea, Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak zuzenean sustatzen dituen etxebizitza guztiak alokairu-erregimenean izan daitezen; b) alokairurako prestazioen eta laguntzen sistema berrantolatzea eta garatzea; c) jenderik gabeko etxebizitzak mobilizatzea, Bizigune eta 149/2021 Dekretua bezalako programa arrakastatsuen bidez.

Puntu honetan, aipatutako proiektu traktoreez gain, honako jarduketa hauek nabarmentzen dira:

• 4. jarduketa. Etxebizitza hutsak mobilizatzea

Jenderik gabeko etxebizitzari eta etxebizitzaren funtzio soziala betetzeko neurriei buruzko ekainaren 8ko 149/2021 Dekretuaren bidez. Dekretu honen bidez, jenderik gabeko etxebizitza deklaratzeko prozedura bat, haien erregistroa eta kanon bat ezartzen dira, bai eta haien okupazioa bizitoki-erabilerarako mobilizatzekeo zenbait neurri ere, bereziki alokairua sustatzekoak.

• 5. jarduketa. Bizigune programaren kanona handitzea

Helburua da partikularren, pertsona fisikoen eta juridikoen etxebizitzak eskura jartzearraztea; eta, horrekin batera, jabeen kanona eguneratzea, alokairu librearen merkatuaren bilakaeraren arabera.

• 6. jarduketa. Alokairu eskuragarriaren agindua garatzea

Horrela, merkatu pribatuak 19.000 eta 30.000 euro bitarteko errentak dituzten pertsonen –ez soilik gazteei– alternatibak eskainiko dizkie.

• **7. jarduketa. Alokairua sustatzeko agindua garatzea**

Itzuli beharrik gabeko cohousing ekimenen finantzaketa barne.

• **8. jarduketa. Hirugarren sektoreko jarduera profesionalak ahalbidetzen dituzten etxebizitza produktiboak sustatzea**

Bizi eta lan egin daitekeen etxebizitzaren eredu berritzaileak bultzatzea, pandemiak agerian utzi duen beharra.

• **9. jarduketa. Etxebizitzaren tipologia dibertsifikatzea (downsizing) sustapen publikoetan**

Etxebizitzaren tamaina eskariaren eta gizarte-premiaren bilakaerara egokitzea, biko-teentzako edo pertsona bakarrarentzako alternatibak kontuan hartuta.

3. ardatza. Errenta

•V. trakzio-proiektua.

25 eta 29 urte bitarteko gazteen emantzipaziorako laguntza ekonomikoen *Emantzipa* Programa abian jartzea

Enpleguko eta etxebizitzako politika iraunkorrak emantzipaziorako laguntza ekonomikoekin osatu behar dira, gazteek autonomia-prozesuei aurre egin ahal izan diezaieten. Hori dela eta, *Emantzipa* abian jartzea planteatu da, gazteen emantzipazio-prozesuak errazteko edo sendotzeko zuzeneko laguntza ekonomikoa jasotzen duen programa. Oinarrizko ezaugarrien aurreikuspena honako hau da:

- Zenbatekoa 300 eurokoa izango da hilean, eta gehienez ere bi urteko iraupena izango du.
- 28.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten 25 eta 29 urte bitarteko gazteentzat izango da.
- Onuradunek Euskadin erroldatuta egon beharko dute eskaera egin aurreko urtean, eta azken hamar urteetan hiru urtez erroldatuta egon direla egiaztatu beharko dute.
- Laguntza hori ez da bateragarria izango babes publikoko etxebizitza bat alokairuan edo jabetzan hartzearekin.
- Gaztelagun programako alokairu-laguntzekin bateragarria izango da. DSBEn edo BGDSren ondorioetarako, onuradunaren diru-sarreren zati gisa zenbatuko da.
- Bikotekidearekin edo beste pertsona batzuekin bizi diren gazteen kasuan, bereiz le-gokiekeen zenbatekoa murriztuko litzateke.

Laguntza-programa hori benetan arautzeko, berariazko dekretu bat izapidetuko da. Atal honetan adierazitako ezaugarriak aurreikuspenen aurrerapena dira, eta oraindik ere doikuntzak edo modulazioak jasan ditzake dekretu hori izapidetzean.

Arlo arduraduna	<i>·Gazteria Zuzendaritza.</i>
Martxan jartzeko egutegia	<i>·Laguntzak arautzen dituen dekretua 2023. urtearen amaieran edo 2024. urtearen hasieran onartzea aurreikusten da. Dekretua 2024an sartuko da indarrean.</i>
Aurrekontu-zenbatespena	<i>·Aurretizko azterketaren zain.</i>

•VI. trakzio-proiektua.

Ekintzailtza-, prestakuntza- edo etxebizitza-proiektuetarako mailegu-programaren garatzea

Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategian (2. jarduketa) aurreikusitakoaren arabera, 2024tik aurrera interesik gabeko mailegu-programa bat sortzea, epe luzera itzultzeko aukerarekin, 25-34 urteko gazteentzako ekintzailtza-, prestakuntza- eta/edo etxebizitza-proiektuetarako.

Exekuzioaren lehen hiru urteetan, programa irekita egongo da aurreikusitako aurrekontua agortu arte, haren eragina ebaluatzeko eta aurrekontu-aurreikuspena lortutako erantzunaren arabera urtero doitzeko. 2023an zehar, azterketa bat egingo da programari eutsiko litzaiokeen adinari, kuantifikazioari eta arautzeko irizpideei buruz, bai eta desberdintasun-egoera espezifikoari erantzuten dieten ekintza positiboak sartzeko aukerari buruz ere.

Arlo arduraduna	<i>·Gazteria Zuzendaritza.</i>
Martxan jartzeko egutegia	<i>·Aurreiazko azterketa 2023an egingo da.</i>
Aurrekontu-zenbatespena	<i>·Aurreiazko azterketaren zain.</i>

Jarduketa konektatuak eta/edo osagarriak errenta arloan

Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategian aurreikusitakoaren arabera, eremu horretan honako jarduera hauek sartzen dira:

- **10. jarduketa. Ardurapeko seme-alaba bakoitzeko zuzeneko laguntzak handitzea** (Erronka Demografikorako Estrategiaren 1. jarduketa)

Ardurapeko seme-alaba bakoitzeko hilean 200 euroko laguntza zuzena ematea, hiru urtera arte. Laguntza hori bateragarria izango da 4 eta 7 urte bitarteko familia ugarientzako egungo prestazioekin, egungo zerga-kenkariekin eta DSBEren seme-alabengatik laguntzekin. Neurri hori bat dator UNICEFek sustatutako “Lehenengo 1.000 egunetako Programekin”. Horien irizpidearen arabera, herri-administrazioek lehen 1.000 egun horietan egin behar dituzte inbertsioak, haurren bizitzako lehen hiru urteek etorkizunerako duten garrantziagatik.

- **11. jarduketa. 0-2 urteko etaparen doakotasuna, Haurreskolak Partzuergoaren bidez** (3. jarduketa)

Haur-eskoletako 0-2 urteko etapan doakotasuna bermatzea, Haurreskolak Partzuergoa indartuz. Ekimen hau kontziliazioa, hezkuntzaren unibertsaltasuna eta aukera-berdintasuna sustatzeko neurrien multzoa sendotzera bideratuta dago.

- **12. jarduketa. Ikuspegi demografikoaren arau-zeharkakotasuna** (4. jarduketa)

Xedapen orokorrak egiteko prozedura ezartzen duen araudia aldatzea, legeak, arauak, estrategiak, sektoreko jarduera-planak edo inbertsio-programak egitean demografiaren ikuspegia kontuan har dadin, familiaren ikuspegia barne. (8/2003 Legea, abenduaren 22koa. Xedapen orokorrak egiteko prozedura).

- **13. jarduketa. Garraioa erabiltzeko tarifak egokitzea** (13. jarduketa)

Gazteentzako garraio publikoaren prezioak berrikustea eta tarifak aldatzea; zehazki, lurralde guztietan bateratzea Gazteriaren Legearen arabera gaztetzat jotzen den adin-tarteari dagozkion tarifak.

4. ardatza. Kohesioa

•VII. trakzio-proiektua.

Trapezistak programa garatzea, 25 urtera arteko familia-laguntzako sarerik gabeko gazteei laguntzeko

Trapezistak programa garatzea, 18 eta 25 urte bitarteko gazteentzat. Ostaturako, mantenu-rako, gizarte-laguntzarako, gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzerako eta prestakuntza-eta lan-arloko esku-hartzerako prestazioak eskaintzen ditu, hiru bizikidetzaren kontuan hartuta: anaia/arreba nagusiarekin, ikasle edo langile gazteekin, eta belaunaldiartekoa. Hori guztia helduarora igarotzeko prozesuetan laguntzeko. Programa horrek Euskarri Estrategiaren 1. lehentasuna garatzen du, kalteberatasun-egoeran dauden adingabeak eta gazteak gizarteratzeko eta laneratzeko erakundearteko erreferentzia-esparrua.

Irauli izeneko programaren lehen faseak ostatu-baliabide kolektiboak eta gizarte-laguntzako, gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzerako eta prestakuntzako prestazioak eskaintzen dizkie Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren babes-saretik (adin-nagusitasunetik 18 hilabetera emantzipazio-baliabide hedagarriak dituen sarea) irtendako edo, adinez nagusiak izanik, kalean dauden gazteei.

Programa bateragarria da gizarteratzeko laguntzak eta diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko sistemako (DSBE/EPO) prestazioak eskuratzearekin, bai eta GLLak eskuratzearekin ere. Horrela, parte-hartzaileek ostatu- eta mantenu-gastuak ordaintzen lagunduko dieten laguntza eta prestazio horiek jasotzeko eskubidea baliatu ahal izango dute.

Trapezistak eta Irailiren ardura duen arloa	<i>·Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.</i>
Martxan jartzeko egutegia	<i>·Aldi osoan zehar.</i>
Trapezistak eta Irailiren aurrekontu-zenbatespena	<i>·4.000.000 euro, 2023an.</i>

•VIII. trakzio-proiektua.

Zaurgarritasun-egoeran dauden gazteei (18 urtetik gorakoei) laguntzeko neurriak garatzea

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eskuratzeko adina murriztea. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren (DSBEES) lege-proiektuaren tramitazioaren testuinguruan, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) eskuratzeko gutxienez adina murriztea, gaur egun 23 urteko adinetik 18 urteko adinera. Aitorpen horrek ahalbidetzen du, emantzipazio-errenta bat izan gabe, norberaren bizitza-proiektu bati ekiten dioten gazteek familia-etxera itzuli beharrik ez izatea eta hasitako prozesuarekin jarraitu ahal izatea.

Murrizketa hori honako hauei aplikatuko zaie: baliabide ekonomiko nahikorik ez dutenei; eskaera egin baino gutxienez urtebete lehenagotik modu independentean bizi direnei, eskaera egin aurreko urtean Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-zerbitzuen edo enpleguaren aurreko zerbitzuen eskatzaile gisa inskribatuta daudenei, enplegagarritasuna hobetzeko jarduerak eta prestakuntza-ekintzak eskola-karga betez egin dituztenei, gaitasun- eta trebetasun-ebaluazioak egin dituztenei eta enplegu-eskaintza egokiak onartu dituztenei, eta langabeen kasuan, enplegu-legerian aurreikusitako baldintzetan. Baita Gizarte Segurantzaren Sistema osatzen duten araubideetako edozeinetan azken bi urteetan gutxienez 240 egunez alta emanda egon denean ere.

Aurreikuspen horrek aukera emango die kalteberatasun-egoeran dauden pertsona heldu gazteei DSBEa benetan eskuratzeko, adinagatiko diskriminazio-egoerak saihestuz eta gizarteratzeko eta emantzipatzeko prozesuetan gazte kalteberenek izaten dituzten zailtasun batzuk murriztuz.

DSBEaz arduratzen den arloa	<i>·Lan eta Enplegu Saila.</i>
Martxan jartzeko egutegia	<i>·Aldi osoan zehar.</i>
Diru-sarrerak bermatzeko errenta eskuratzeko adin-murrizketaren zenbatespena	<i>·1.000.000 euro.</i>
GLL programaren zenbatespena	<i>·Aurrekontu orokorren proiektuan sartuta dago.</i>

Jarduketa konektatuak eta/edo osagarriak

kohesio arloan

Euskarri Estrategian jasotako trakzio-proiektuek eta honako jarduketa hauek neurrien – araudizkoak eta operatiboak– multzo bat osatzen dute, kalteberatasun-egoeran dauden adingabe eta gazteen gizarteratzea eta laneratzea bultzatzeko, arreta berezia jarritz familia-laguntzako sarerik ez dutenei, migratzaileak zein bertakoak izan, babes-saretik irten-dakoak edo ez.

• 14. jarduketa. Berrikuntza etxe-, tutoretza- edo mentoretza-ereduetan

Familia-erreferenterik gabeko adingabeei eta tutoretzapean egondako gazteei laguntzeko prozesuetan hobekuntzak eta berrikuntzak aztertzea, besteak beste, etxe-ko eredu dibertsifikazioan, tutoretza instituzionalean edo mentoretza-prozesuen garapenean.

• 15. jarduketa. Tokiko hizkuntzak ikastea

Tokiko hizkuntzak ikasteko prozesuak eta denborak hobetzea, oinarrizko prestakuntzako programekin batera, bereziki ibilbide profesional edo akademikorik gabeko migratzaile gazteentzat.

• 16. jarduketa. Lan-esperientzia egiaztatzea

Beren herrialdean ibilbide profesional edo akademiko garatua duten gazte migratzaileen gaikuntza egiaztatzeko mekanismo arinak ezartzea, baita praktika profesionale-rako kontratuak egiteko ere.

• 17. jarduketa. Prestakuntza-prozesu egokituak

Prestakuntza-prozesu erabilgarriak eta tutoretzapeko pertsonen eta tutoretzapean egondako gazteen errealitatera egokitutakoak antolatzea, ziurtagiri akademiko aitortuarekin amaitzeko.

• 18. jarduketa. Lan-baimenik gabeko pertsonak gizarteratzea eta laneratzea

Euskadin bizi diren eta lan-baimenik ez duten pertsonak gizarteratzeko eta laneratze-ko ibilbideak garatzea.

• 19. jarduera. Erakundeen arteko erantzukidetasuna

Gobernantza erantzunkidea gauzatzen lagunduko duten erakunde arteko akordioak sustatzea, familia-erreferenterik gabeko adingabeak eta gazteak gizarteratzeko prozesuak bultzatzeko eta ibilbide horietan sortzen diren arazoak eta itoguneak konpontzeko.

5. ardatza. Erresilientzia

•IX. trakzio-proiektua.

Aholkularitza eta laguntza pertsonalizatuko zerbitzua, autonomia-ibilbideak eta emantzipazio-kultura berria bultzatzeko GAZ Zerbitzua sortzea; bai eta Ameslariak Programa garatzea ere

GAZ (Gazteriaren-ibilbideak Abiarazteko Zerbitzua) abian jartzea. Informazioa, orientazioa, bitartekaritza, aholkularitza eta laguntza integral, jarraitua eta pertsonalizatua emateko online eta aurrez aurreko zerbitzu bat diseinatzea, pilotatzea eta ebaluatzea, gazteen emantzipaziorako eta mugikortasunerako, itzulera barne.

Zerbitzu hori erabiltzaileak eskatuta emango da, eta emantzipazio-ibilbidean zehar eman ahal izango da, harik eta pertsona horrek familia-etxetik irtetea finkatzen duen arte (gutxienez 24 hilabetez jarraian).

Zerbitzua online emango du Eusko Jaurlaritzak, gazte-emantzipaziorako zentroyen sare baten bidez. Zentro horiek online zerbitzuarekin artikulatuko dira, Gazteria Zuzendaritzak sustatu eta koordinatuko ditu, eta aurrez aurreko arreta eskainiko dute. Zerbitzu horrek erakundeen arteko lankidetzak-guneak eratzea bilatuko du, eraginkortasun handiagoa lortzeko.

Azken batean, zerbitzu honen xedea gazteen ahalduntzea eta erresilientzia sustatzea da, norberaren eta familiaren bizitzarako eta garapenerako proiektu autonomo bati bide emateko.

Gazteen aukera-berdintasuna bermatzeko, edozein dela ere haien arraza edo jatorri etnikoa, erlijioa edo sinesmenak, desgaitasuna, gaixotasun mentala edo sexu-orientazioa, kontuan hartuko da bizi-ibilbideen aniztasuna, eta zerbitzu espezializatuekin koordinatzea bultzatuko da. Era berean, gazteek zerbitzuaren diseinu bateratuan parte hartzea sustatuko da.

Horrez gain, eta GAZek emandako zerbitzuen barruan, Ameslariak (Dreamers) programa aktibatzea, gazteen migrazio- eta mugikortasun-proiektuei laguntzeko. Gazteak erakartzea, atxikitzea, itzultzea eta konektatzea du helburu, bai eta haien premiak ebaluatzea eta laguntza-baliabideen diseinu parte-hartzailea egitea ere.

Zerbitzuak eta programak ekosistema digital bat dute euskarri gisa, eta guztiek garatzen dute martxoaren 10eko 2/2022 Gazteriaren Legearen 20. eta 23. artikuluetan aurreikusitakoa.

Arlo arduraduna	<i>-Gazteria Zuzendaritza.</i>
Martxan jartzeko egutegia	<i>-2023.</i>
Aurrekontuaren zenbatespena	<i>-380.000 euro 2023rako.</i>

•X. trakzio-proiektua.

Basque Deal for Youth (Herri-ituna gazteekin eta gazteen alde)

Gazteekin eta gazteen aldeko Ituna bultzatzea (Basque Deal for Youth), Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin lankidetzak estuan. Itun berri hori orainaren beharra da, eta belau-naldien arteko ekitatea oinarri duen etorkizuneko apustua. Gizarte osoaren inplikazioa eta gazteen partaidetza eta lidergo nabarmena eskatzen ditu.

Itun horrek, belaunaldien arteko elkartasunaren printzipioan oinarrituta, gizarte-kohe-
sioari eusten, aukerak sortzen, euskal gizartea gaztetzen eta erronka demografikoari aurre
egiten lagunduko du. Haren edukiak arreta berezia eskainiko die genero-diskriminazioak,
migrazioaren ondorioek, egoera sozioekonomiko kaskarrak, desgaitasunaren edo gaixo-
tasun mentalaren moduko errealitateen inpaktuak edo aukera-berdintasuna baldintza-
tzen duen beste edozeinek eragindako desberdintasun-egoerei.

Itun honen eraikuntza belaunaldien arteko elkarriketa- eta akordio-prozesu gisa ulertzen
da, pertsona eta familia gazteen emantzipazioa eta bizi-proiektuak ahalbidetzeko. Hasierako
proposamenak bost ardatz nagusi izango ditu, estrategia honetan planteatutako esparru
estrategiko berdinekin bat datozenak: enplegua, etxebizitza, errenta, kohesioa eta erresi-
lientzia.

Itunaren edukiaren proposamena eta filosofia, azken batean, honako honetara bideratu-
ta egongo dira: emantzipatzeko adinaren atzerapenean eragiten duten eta belaunaldien
arteko kohesioa, aukera-berdintasuna eta ibilbideen aniztasuna, belaunaldi guztiek es-
kubideak baliatzea, errenta birbanatzea eta gazteen ahalduntzea eta erresilientzia susta-
tzen dituzten faktore objektiboen eta subjektiboen eraldaketa kulturala sustatzera, haien
bizi-proiektuak eta autonomia-prozesuak sustatzeko.

Arlo arduraduna	<i>.Gazteria Zuzendaritza.</i>
Martxan jartzeko egutegia	<i>.2023an zehar.</i>
Aurrekontuaren zenbatespena	<i>.Ondorio ekonomikorik gabe.</i>

Jarduketa konektatuak eta/edo osagarriak erresilientziaren eremuan

• 20. jarduketa. Gazteen emantzipaziorako euskal sarearen artikulazioa

Gazteriaren 2/2022 Legearen 23. artikuluan aurreikusitakoa betetzeko, Eusko Jaurlaritzako
Gazteria Zuzendaritzak Gazteen Emantzipaziorako Euskal Sarea eratuko du. Horre-
tarako, gazte guztien emantzipazio-prozesua erraztera bideratutako zerbitzu, programa
eta laguntza guztien arteko koordinazio- eta sinergia-sistema bat ezarriko du.

Sareak espazio birtual bat izango du gazteen emantzipazioaren inguruko oihartzun
sistema bat dinamizatzeko, sailen arteko, erakundeen arteko eta sektoreen arteko
ikuspegiarekin, gazteak sektore guztiekin eta eremu horretan ekimenak dituzten gi-
zarte-eragile guztiekin lotuz.

• 21. jarduketa. Udalentzako laguntza-programa

Gazteria Zuzendaritzaren aurrekontuetan partida bat sartuko da urtero, toki-erakun-
deei zuzendutako laguntza-programa bat eskaintzeko, udalerrri bakoitzean gazteen
emantzipazio-planak gara ditzaten.

• 22. jarduketa. Gazteen emantzipaziorako laguntzen mapa bateratua

Eskura dauden ekimen publiko guztiak ezagutzea sustatuko duen baliabide-gida bat
egingo da. Ekimen horien helburua gazteen emantzipazio-prozesuak bultzatzea da,
prozesu horiekin lotutako edozein eremutan. Tresna horrek balioa emango dio, bes-
teak beste, aisialdi hezitzailetik gazteen emantzipaziorako egiten den lanari. Mapa
edo gida hori 2023an egin eta aurkeztuko da, eta Gazteria Zuzendaritzak eta Gazteen
Euskal Behatokiak koordinatuko dute, ekosistema birtualean integratuta.

• **23. jarduketa. Komunikazio-plana**

2023an zehar, komunikazio-plan bat diseinatu, aurkeztu eta abian jarriko da, Estrategia eta Gazteen Emantzipaziorako Euskal Sarea osatzen duten ekimenak ezagutzarazteko eta emantzipazio-kultura eraldatzen aurrera jarraitzeko. Komunikazio-plan honen ardatzak kontuan hartuko du gazteek zenbateraino ezagutzen dituzten herri-administrazioek beren hiru mailetan gaitutako emantzipazio-tresnak.

Planak komunikazio-ekintzak jasoko ditu, gazteen emantzipaziorako baliabideei eta laguntzei buruzko informazioa talde ezberdinei helarazteko, komunikazio harmonizatura eta leihatila bakarrera jotzeko helburuarekin. Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategiaren komunikazio-planarekin bat etorri garatuko da.

• **24. jarduketa. Sailen eta erakundeen arteko lankidetzaren eta koordinazioa**

Euskadiko Gazteriaren arloko Erakundearteko Koordinazio Organoaren eta sortzen diren mahaien, batzorde teknikoen edo lantaldeen bidez, emantzipaziorako zeharkako politiken koordinazioa bultzatuko da, bai eta erakundeen arteko lankidetzaren proiektu berritzaileen azterketa ere.

Zeharkako jarduerak: aurrekontua, jarraipena eta ebaluazioa

• **25. jarduketa. Aurrekontuen kudeaketa**

Urteko aurrekontuak estrategia honetara bideratutako baliabideen isla izango dira, bai trakzio-proiektuei dagokienez, bai lotutako jarduerari edo jarduerari osagarrii dagokienez.

Hamar trakzio-proiektuei lotutako edo haien osagarriak diren Jarduketa asko bat datoz abian dauden edo aurreikusita dauden ekimeneekin, eta dagokion arloaren edo sailaren aurrekontu arruntean islatzen dira. Beste Jarduketa batzuek, beren izaeragatik beragatik, ez dute aurrekontu-eragin gehigarririk, eta, azkenik, beste kasu batzuetan, horiek aurrekontuan islatzeko, aldeztu txosten-, diseinu- edo zehaztapen-tresnak amaitu behar dira.

Urteko aurrekontuek, urteko jarraipen-memoriek eta aurreikusitako ebaluazio-prozesuek estrategia horretara bideratutako baliabide gehigarriak jaso beharko dituzte, bai trakzio-proiektuei dagokienez, bai jarduerari konektatuei edo osagarrii dagokienez.

• **26. jarduketa. Urteko jarraipen-memoriak**

2024tik aurrera, Gazteen Emantzipazioa laguntzeko 2030 Euskal Estrategian jasotako aurreikuspenen eta jarduketan betetze-mailari buruzko urteko jarraipen-memoriak egingo dira, baita horien aurrekontu-isla ere. Gazteria Zuzendaritzak koordinatu beharko ditu, eta hurrengo urteko lehen hiruhilekoan aurkeztu beharko dira.

• **27. jarduerak. Adierazleen taula eta ebaluazio-txostenak egitea**

Gazteria Zuzendaritzari dagokio 2025 eta 2028 amaieran aurkeztu behar diren tarteko ebaluazio-prozesuen diseinua eta enkargua planifikatzea, bai eta azken ebaluazioa ere, 2031ko lehen sei hilekoan amaitu beharko dena, eta beste administrazio batzuekin batera gogoeta egiteko guneak sortzea, ebaluazioen ondorioak partekatu ahal izateko. Hiru ebaluazio-prozesu horiek 2. eranskinean aurkeztu den Gazteen Emantzipazioa laguntzeko 2030 Euskal Estrategiaren Adierazleen Taula erabiliko dute.

1. eranskina

Gazteriarekin eta gazteriaren alde herri-ituna egiteko abiapuntuen proposamena

Estrategia horren hamargarren trakzio-proiektuak gazteriarekin eta gazteriaren aldeko ituna bultzatzea planteatzen du. Ekimen hau guztion artean eraiki ahal izango da, elkarriketa- eta akordio-prozesu zabal baten bidez. Prozesu hori bultzatzeko, estrategia honek hiru metodo-irizpide eta edukia zehazteko bost oinarri aurkezten ditu.

•Hiru irizpide metodoari dagokionez

- Lehena. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari eginkizun nabarmena ematea prozesuaren eta haren edukien eraikuntzaren definizio parte-hartzailean.
- Bigarrena. Eusko Legebiltzarrak 2022ko maiatzaren 18an erronka demografikoari buruzko Osoko Bilkura Monografikoan emantzipazioari eta gazteriari buruz onartutako ebazpenak abiapuntu gisa hartzea.
- Hirugarrena. Hasiara batean, Estrategia hau osatzen duten bost ardatzen inguruan lan egitea (enplegua, etxebizitza, errenta, kohesioa eta erresilientzia), adostasuna eskaintzen duten beste batzuk sartzea baztertu gabe.

•Adostasuna lantzen hasteko bost oinarri

- Bat, enplegua eta enplegurako prestakuntza. Gazteen prestakuntza, gaikuntza eta ekintzaitza sustatzea, gazteen enplegua sustatzea eta sortzea, eta haien kalitatea hobetzea ordainsariari, prekarietateari, behin-behinekotasunari edo partzialtasunari dagokienez.
- Bi, etxebizitza. Gazteek etxebizitza eskuratzeko baldintzak erraztea, erakundeen arteko ikuspegiarekin, koordinazio- eta koherentzia-ildo eta -programak ezarriz hiru erakunde-mailetan: udaletan, aldundietan eta Autonomia Erkidegoan.
- Hiru, errenta. Gazteen errenta erabilgarria hobetzen laguntzea, gazteen emantzipazio-prozesuetarako eta familien eraikuntzarako laguntzak, maileguak eta pizgarri fiskalak antolatuz.
- Lau, kohesioa. Belaunaldi barruko kohesioa sustatzea, kalteberatasun-egoeran dauden gazteak gizarteratzea eta laneratzea bultzatzeko neurrien bidez, eta arreta berezia jartzea helduarora igarotzeko prozesuak errazteari.
- Bost, erresilientzia eta parte-hartzea. Emantzipaziorako eta zailtasunaren aurrean ahalduntzeko kultura-eraldaketa bultzatzea. Gazteek prozesu honen garapenean eta politika publiko guztien eraketan parte har dezaten bultzatzea.

2. eranskina

Gazteen Emantzipazioa laguntzeko 2030 Euskal Estrategiaren adierazleen taula

Taula honetan, inpaktu-adierazleak (emantzipazioa) eta emaitzak (faktore objektiboak eta subjektiboak) prozesu-adierazleekin konbinatzen dira, faktore objektibo edo subjektibo bati lotutako trakzio-proiektu edo jarduketa jakin baten inpaktuaren, emaitzen eta parte-hartzearen arteko erlazioa identifikatuz, bai eta emaitzen eta faktoreen konbinazioaren arteko erlazioa ere.

Banaka lortutako datuetatik abiatuta, tarteko eta amaierako ebaluazioak egingo dira, emantzipazioan eragina duten faktoreei eta horiei lotutako jarduketei buruzko ikaskuntza sustatzeko, emaitzak eta lortu nahi den inpaktua lortzen laguntzen baitute.

1. 18-34 urte bitarteko emantzipazio-tasa.

2. Emantzipatzeko batez besteko adina.

3. Adin errealaren eta 15 eta 29 urte bitarteko emantzipazio-adin idealaren arteko aldea.

4. 25 eta 29 urte bitartean emantzipatzeko zain egotea.

5. 16 eta 29 urte bitarteko gazteen okupazio-tasa.

6. 16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa.

7. 16 eta 29 urte bitarteko aldi baterako kontratuen tasa.

8. 16 eta 29 urte bitarteko lanaldi partzialeko lanaren tasa.

9. 18-34 urteko hileko batez besteko soldata garbia.

10. 25-29 urteko adin-taldearen urteko batez besteko errenta pertsonala.

11. 18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko gazteek etxebizitza librea jabetzan eskuratzeko kostua.

12. 18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko gazteek alokairuko etxebizitza librea eskuratzeko kostua.